



**GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOKO LEHIAKETA ETA DIZIPLINA
BATZORDEAREN 300 EUROKO ZIGORRA EZARTZEKO 2016KO
AZAROAREN 1EKO ERABAKIAREN AURKA LENGOKOAK KIROL
ELKARTEAK JARRITAKO ERREKURTSOA IZAPIDERA EZ ONARTZEA
EBAZTEKO ERABAKIA**

Espediente-zenbakia: 37/2016

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2016ko azaroaren 10ean, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak, LENGOKOAK Kirol Elkartearen presidente modura (aurrerantzean errekurtsogilea), Gipuzkoako Futbol Federazioan errekurtsoa aurkeztu zuen 2016ko azaroaren 1eko erabakiaren aurka, zeinaren arabera, Gipuzkoako Futbol Federazioko Eskola Lehiaketa Batzordeak errekurtsogileari 300 euroko zigorra ezartzea erabaki duen arau-hauste oso larria egiteagatik (Euskal Futbol Federazioko Diziplina Araubidearen Araudiko 50. artikulua).

Batzordeak zigorra ezartzea erabaki zuen, behin erreferentziazko egutegia eratuta, futbol-eskoletan izen emandako bi taldeetako bat lehiaketatik baztertzeagatik.

Errekurtsu hori 2016ko azaroaren 15ean sartu zen Kirol Justiziako Euskal Batzordearen idazkaritzan.

Errekurtsoarekin zigorra baliogabetu nahi da, izan ere, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuko 2.3 artikulua (aurrerantzean 391/2013 Dekretua) arabera, Eskola Lehiaketa Batzordeak eskumena du «*lurralde historikoetako foru organoek onartutako eskola-kirolaren eta Euskadiko eskola-jokoaren urteko programetan*



aurreikusitako kirol lehiaketetatik (zeintzuetan parte hartzeko dagokion eskola-kirolaren lizentzia izan behar den)» eratorzen diren ekintzak ezagutu eta ebazteko.

Haatik, jarduera ez dago Gipuzkoako eskola-kirolaren 2016/2017 programan sartuta, ezta Gipuzkoako Futbol Federazioaren (aurrerantzean GFF) lehiaketa-planean (hartako Batzar Nagusian onartua) ere. Halaber, ez da eskola-kiroleko lizentziarik izapidetzen, ezta bestelakorik ere, eta ez dira aktak jasotzen, eta ez da emaitza eta sailkapenik argitaratzen.

Horrenbestez, errekurtsogileak alegatzen duenez, 391/2013 Dekretuaren aplikazio-eremutik kanpo dagoen eskola-jarduera bat da. Horrenbestez, GFFko Eskola Lehiaketaren Batzordeak zigorra ezartzeko eskumenik ez duela ondorioztatzen da.

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean KJEB) GFFari espedientea eskatzea erabaki zuen, eta, aldi berean, egokitzat jotzen zituen alegazioak egiteko epea eman zion; 2016ko azaroaren 29an aurkeztu dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. GFFak, alegazioak jasotzen dituen bere idatzian, eta aipatutako eskolako jarduerak eskola-kirola kalifikatzea ukatu ostean, adierazi du egiaz Gipuzkoako Futbol Federazioko Kirol Lehiaketa eta Diziplinako Batzordea dela zigorra ezarri duena, azken horrek igorritako espedientean jasotzen denaren arabera, eta ez Eskola Lehiaketa Batzordea (errekurtsogileak aipatzen duen moduan). Horrenbestez, ez da 391/2013 Dekretua aplikatzen, baizik eta Euskal Futbol Federazioaren diziplina-araudia. Horregatik, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak eskumenik ez duela adierazi behar du «Aztergai



dugun auzia beste jurisdikzio-organo baten eskumen eskusibo eta baztertzaila delako».

Horri dagokionez, aipatu behar da urriaren 18ko KJEB arautzeko 310/2005 Dekretuko (aurrerantzean 310/2005 Dekretua) 3. artikulua arabera, Euskadiko Futbol Federazioaren Diziiplina-araudiko 9.1 artikuluan ezarritakoari dagokionez, KJEB batzordeak ez duela eskumenik errekurtsio hau ezagutu eta ebazteko. Eskumeni hori aipatu Federazioko Apelazio Batzordeari dagokio «*Apelazio Batzordeak ebatziko ditu EFFko Diziiplina-batzordeak hartutako erabakien aurka jartzen diren errekurtsioak, eta baita lurraldeetako federazioetako diziiplina-organoek hartutako erabakien aurkakoak ere*».

Horrenbestez, 310/2005 Dekretuko 16.4 a) artikulua aplikatu behar da, zeinaren arabera KJEB batzordeak jarritako errekurtsioa izapidera onartzea uka dezakeen, Batzordearen eskumena ez izateagatik.

Haatik, KJEB batzordeak eskumena izango luke, baldin eta EFF federazioak Eskola Diziplinako Batzorde modura jardun izan balu, eskumeneko foru organoak lagata, 391/2013 Dekretuko 4.1.b) artikulua aplikatuz. Inguruabar hori, ordea, ez da espedientean jasotzen.

Bigarrena. Aurreko oinarrian adierazitakoa gorabehera, Batzorde honek ohar hauek egin nahi ditu:

1. Aztertu beharreko lehen kontua da Futbol Eskolek antolatutako lehiaketa-jarduera eskola-kirolaz aparteko jarduerara modura har daitekeen ala kirol-eremu horren barnean sartzen den.

Eskola-kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan xedatzen denez «*eskola-kirol modura ulertzen da eskola-hurrek irakats-denboratik kanpo eta*



derrigorrezko eskola-epealdian zehar burututako kirol-jarduera antolatua». Gainera, kirol-eskolako jarduerak «prestakuntzazko izaera izan behar dute, eskola-haurren heziketa integralerako prozesuaren barnean txertatuta, eta hezkuntza-sistemaren eta, oro har, hartako etapan eta, zehazki, soin-heziketako helburu orokorren arabera izan behar dira».

Futbol Eskolak izendatzen direnek antolatutako lehiaketa bat dator eskola-kirolaren definizio eta ezaugarriekin. Jarduera horiek formatu ezberdinetan antola daitezke, eskola-kiroleko programak, eskola-jokoak (3. artikulua) edo eskola-kirolaren urteko programetan sartzen ez diren kirol-jarduerak eta aldez aurretik eskumeneko foru organoen baimenarekin ezarritako prozeduraren arabera (11. eta 12. artikulua) eskola-kiroleko programetan aurreikusten diren hastapen eta teknifikazioko unitatez aparteko irakaskuntza-jarduerak.

Eskola-kiroleko programa batean barneratuta ez izateak ez du adierazi nahi kirol-eremutik kanpo geratzen direnik. Horrenbestez, guztiak kirol-eskolaren kontzeptuan sartzen dira eta aipatu Dekretuaren barnean kokatzen dira.

Aurreikuspen horiek gauzatu, urriaren 19ko 63/2007 Foru Aginduak, hastapen-unitateei dagokienez, eskola-haurrentzako kirol arloko teknifikazioaren erregimena erregulatzeko araudia onartu zuen. Agindu horretako 2. artikuluan berezko teknifikazio-unitateak eta hastapen-unitateak bereizten dira, azken horiek horrela definituz: «*kirol-modalitateen irakaskuntza-jarduerak garatzen dituztenak, edo kirola orokorki irakastekoak, kirol-lehiaketetan parte-hartzearekin lotzen ez direnak eta haietan parte hartu nahi duten eskola-haur guztiei zuzenduta daudenak, kirol jarduera burutzeko trebetasunaren arabera mugarik gabe. Jarduera horien kasuan, ez da, inolaz ere, hautaketa estalirik egingo. Hastapen-unitate horien barnean, eta horien ezaugarrien arabera, hainbat azpimultzo bereizi ahal dira: bitartekoa aurretik menderatzekoak, hastapen orokorrekoak, kirol-modalitate batekin espezifikoki lotutako hastapenekoak, etab.*».



Agindu horretan, era berean, hura kirol-modalitate ezberdinetan gradualki aplikatzeko premia aurreikusten zen, bakoitzaren kasuan eska daitezkeen betekizun zehatzak adostu ondoren. Hala, 63/2007 Foru Aginduaren xedapen iragankorreko 1. atalean adierazten denez, *«Foru agindu hau gradualki aplikatu aurretik modalitate edo modalitate-multzo bakoitzari dagozkion irizpideak zehaztu behar dira, ahal dela federazioekin adinei, titulazioei, arduradun teknikoei, helburu eta edukien gaineko jarraibide orokorrei, lehiaketa-jardueren antolaketan parte hartzeko baldintzei, irakaskuntza-jardueren ezaugarriei (bitartekora egokitzea, hastapen orokorrekoak, hastapen espezifikokoak, teknifikazioak edo beste edozein) eta barneratzea egokitzen den beste edozein irizpideri buruzko hitzarmenak adostuta. Kirol modalitate edo modalitate multzo bakoitzarentzako baimen-irizpide horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kirol eta Kanpoko Ekintzen Saileko foru diputatuaren foru agindu espezifikoko bidez onartuko dira».*

Bada, otsailaren 25eko 69/2008 Foru Aginduan eskola-haurrentzako kirol arloko hastapen-unitateen baimenen araubideari dagokion araudi zehatza jasotzen da saskibaloia, eskubaloia, futbol, areto-futbol eta errugbi modalitateetan; horien inguruan dagozkion erabakiak hartu dira kasuan kasuko kirol-federazioekin.

Eta, azkenik, Gipuzkoako Futbol Federazioaren 23 zenbakidun Zirkularrak, 2016/17 denboraldiari dagokion eskola-haurrentzako (Futbol Eskolak) kirol arloko hastapen-unitateei buruzkoak, lehiaketa-jarduerak arautzen ditu benjamin, lehen eta bigarren urteko kimuen eta emakumezko kimuen kategoriatan, eta zera adierazten da:

«Urriaren 19ko 63/2007 Foru Aginduan eta haren aplikazioa arautzen duen Foru Aginduan (ekainaren 18ko 104/2010 Foru Agindua) kirol baterako hastapen espezifikorako aukeren garapen eta bultzada barneratzen da. Hori Gipuzkoako Foru Aldundiak, Real Sociedad klubak eta Gipuzkoako Futbol Federazioak prestakuntza-adinean abiarazitako ildo estrategikoan kokatzen da.



Aztergai den lehiaketa-jarduerak eskola-futbolaren antolaketa burutzen du Kirol arloko Hastapen-unitateen bidez eta bat dator erabat eskola-kirolaren funtsezko printzipioekin eta haurren heziketa-prozesu integralarekin.

Horri dagokionez, ezinbestekoa da aipatutako foru arauetan artikulatzen den arauditik eratorzen diren filosofia eta jarrerak bultzatzea; hots:

- Futbol Eskoletarako izen emate librea hala nahi duten eskola-haur guztientzat eta parte-hartze ireki eta berdintasunezkoa lehiaketa-jardueretan, futboleko beren trebetasunetatik eratorritako mugarik gabe.*
- Irakaskuntza- eta lehiaketa-jarduerak eskola-kirolaren esparru orokorraren barnean gauzatzen diren jardueren osagarri izango dira, eta sekula ez haien ordezkioak.*
- Lehiaketa-jardunaldiak egutegian ezarritako egunetara mugatzen dira, zirkular honetan atxikitzen dena».*

Zirkular honetan ekainaren 18ko 104/2010 Foru Agindua aipatzen da, 2010-2011 ikasturterako eskola-kirolaren jardueren programa onartzen zuena. Agindu hori 2016-2017 ikasturterako eskola-kirolaren jardueren programa onartzen duen uztailaren 15eko 02/2016 Foru Aginduak ordezkatu du denboraldi honetan.

Azaldutakoaren arabera, ondorioztatu behar da Futbol Eskolek antolatutako lehiaketa eskola-kirolaren barruan dagoen hasteko jarduera modura hartu behar dela, Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimenaren mende eta aurrez eskola-kirolari dagokionez zerrendatutako xedapenekin arautzen dena.

2. Horrenbestez, aplikagarri litzateke 391/2013 Dekretua, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa. Mendekotasun bereziaren harreman hori, diziplina-araubidearen oinarria eta hartako 3. artikuluan eskatua, kasu honetan, lehiaketan izen ematearekin sortuko litzateke; izan ere, jarduera ez dago barneratuta eskola-kirolaren programan (13. artikulua arabera eskola-lizentzia izatea eskatzen duen egoera).



Horrenbestez, lehenik eta behin, parte-hartzaileei buruzko eskola-kirolaren eskumeneko organoen ardura izango litzateke diziiplina-ahala aplikatzea eskola-kirolaren lehiaketetan, hau da, hura aplikatzeaz arduratzen den foru organoari edo modalitateko Federazioari, baldin eta ahal hori laga balitz. Eta bigarrenik, KJEB batzordearen ardura izango litzateke, 391/2013 Dekretuko 4. artikuluan xedatzen denez.

Bestalde, diziiplina-ahala aplikatzeko, lizentzia izatea edo izena ematea eskatzeak, inplikazio modura, ekarriko luke Federazio bateko Kirol Lehiaketa eta Diziiplina Batzordeak hura ezartzeko eskumena duela soilik parte-hartzaileek federazio-lizentzia dutenean edo izen-ematea eskolaz aparteko federazio-kirolaren lehiaketa bati dagokionean. Horrenbestez, mendekotasunezko harreman berezi bat egon behar da parte-hartzaileen eta diziiplina-prozedura baten eta zigor ezarpenaren izapidea baitaratzen duen Federazioaren artean.

3. Zigorraren ebazpenaren edukiari eta ondorengo jakinarazpenari dagokionez, horri buruz EFF federazioaren Diziiplina-araudiko 24. eta 25. artikuluetan ezarritakoa bete behar da, hots, «*Ebazpenetan zigortzen den jazoeraren tipifikazioa adierazi beharko da, urratutako manua aipatuta eta jar daitekeen errekurtsua adierazita, errekurtsua zein organora zuzendu beharko litzatekeen eta horretarako ezarritako epea islatuz*» eta «*Kirol diziplinaren prozeduran interesdunengan eragina duen erabaki edo ebazpen oro ahalik eta epe laburrenean jakinarazi beharko zaie haiei, eta, beranduenera, hamar egun balioduneko epean, egintza eman den egunetik zenbatzen hasita, eta erabakiaren testu osoa agertu beharko da*».

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

ADOSTU DU



xxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak, LENGOKOAK KIROL ELKARTEKO presidente modura, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Kirol Lehiaketa eta Diziplina Batzordeak 2016ko azaroaren 1ean emandako erabakiaren (erakunde horri 300 euroko isuna ezartzea adosten baita, arau-hauste oso larria betetzeagatik) aurka jarritako errekurtsua ez onartzea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsua aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 25a

JOSÉ LUIS AGUIRRE ARRATIBEL

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea